

---

# Interes interesatua ere interesgarri

Barandiaran Andueza, Joseba

Ekonomisten Euskal Elkargoa  
josebabarandi@yahoo.com

---

# IK

---

Kapital ekonomikoa eta euskaraz bizi nahi duen komunitatearen arteko harremanaren azterketa. Egundituen eta behar lituzken aktiboak: eskaintzaz gain, eskaria, kontsumitzaile ahaldunduak eta euskara balio erantsi gisa bistaratzea. Inpaktuak lortzeko, Erantzukizun Sozial Korporatiboan txertatzea eta noranahikotasuna landu behar dira, enpresarien artera ere egokituz. Guzti horretarako, landu beharreko gaitasun nagusia, giza kapitala da; pertsonak. Eta azkenik, guzti horretarako eskura dauden palanka batzuk ere aipatzen dira.

**Giltza-hitzak:** Kapitala. Ekonomia. Balio erantsia. Kontsumitzaileak. Noranahikotasuna.

Beste kapital motekin alderatuta, kapital ekonomikoa (enpresak, dirua, merkatua...) izango da, orain arte, euskara eta euskaraz garatu nahi duen komunitateak arrotzen, urrunen, sentitu izan duena. Derragun kapital horrek ez duela interes handirik izan, orohar, euskararekiko. Katalunian ez bezala, Euskal Herriko goi klaseak, diruak, botere ekonomikoak, merkatuak... ez du, salbuespenak salbuespen, euskara bere egin, orain artean bederen. Edo ezkutuan mantendu du, interes hori. Hausnarketa personal honetan, 2040ra begira, galdera horri erantzuna ematea da asmoa: euskaraz garatu nahi duen komunitateak, zein indar, kapital, amets, ekimen, aktibo izan behar ditu hortan guztian eragiteko? Balizko erantzun batzuk ematen saiatuko naiz hurrengo lerroetan. Hurrenkera honetan jorratuko dira aktiboak, inpaktu potentzialak, landu beharreko gaitasunak eta palankak.

**1. Aktiboen konstelazioa: bi osagai nagusi, nortasuna eta modernotasuna bateratuz = nortasun modernoa: euskara edo ez gara (gu izango)**

**1.1. Eskaria: kontsumitzaile ahaldunduak, euskaraz kontsumitzeaz harro**

---

Merkatuaz eta ekonomiaz ari garela, berezko joera bat badugu sarri enpresengan, saltzaileengan, hau da, eskaintza fokua jartzeko. Eta eskaintza garrantzitsua da, prefosta. Baina sarri ahazten dugu merkatuak ESKARIAri erantzuten diola; eskaririk gabeko eskaintzak ezin baitu luze iraun. Egungo ekonomian, merkatu ekonomia, kontsumitzaileak agintzen du hein handi batean; beste faktore batzuk gutxietsi gabe, baditu pisua, zeresana eta presio moduak. Gainera eta, gaur egun, aurretik sekula ez bezala, kontsumitzaileen iritziak, eskakizunak eta iradokizunak sekula baino argiago, ugariago eta eraginkorrago zabaldu daitezke gizartera. Besteak beste sare sozialen bidez, Trip Advisor moduko iritzi plataformetan, Elebide moduko herraminten bidez, eta abar.

Euskaldunok, kontsumitzailearen ere, ahaldundu egin behar dugu, nor izan; euskaraz kontsumitzeaz harro agertu behar dugu, zerbitzuak euskaraz aktiboki eskatu eta, dagokionean, ordainduz. Okindegian, jatetxeetan, bankuan, hoteletan, Osakidetza/Osasunbidean nahiz salgune fisiko eta digitaletan: ondasun eta zerbitzuak euskaraz balioetsi behar ditugu. Gure lehen hitzek, nahiz gure kexa eta iradokizunek, dagokionean, ikusgarri egin behar gaituzte. Euskaraz bizi nahi badugu, euskaraz kontsumitu behar dugu; gure dirua, aktiboki, euskara eskatzeko ere baliatu baitezakegu. Eta horrekin eskaintza sustatu.

## 1.2. Eskaintza: enpresa eta enpresariak

Enpresariak **merkatua**, interesa, ikusten duten heinean, berez joko dute euskarara. Interes interesatua ere interesgarria baita. Euskaraz ez funtzionatzea, edo ondasun nahiz zerbitzu bat euskaraz ez eskaintzea, desabantaila, edo kalteko dela ikusiz gero, eskariaren ondorioz, berez etorriko dira euskarara. Beti ere, euskaldungoak aktiboki aldarrikatzen badu eskari hori. Bere garaian Euskaltel sortze hutsak Telefonica euskarazko fakturak eskaintzera ekarri zuen bezalaxe.

Bestalde, sindikatu batzuk (abertzaleek gehiago), sarri adierazi izan dute euskararekiko babesia. Eta dena esatera, kasu bakanetan, kontraktotasuna, argia edo zeharkakoa, batik bat "periferia" deitu izan den horretan, Nafarroa Garaian eta Ipar Euskal Herrian. Baina idatzi honetan euskaraz bizi nahi duen komunitatea dugu buruan. Ezberdina da patronala. Maila indibidualean, enpresari jakin batzuk ere, zenbaitetan mezenazgoaren bidez eta abar, adierazi izan diote babesik euskarari. Baina zilegi bekit esatea sindikatuek baino ahots apalagoz egin dutela. Dena den, etorkizunerako aktibo

garrantzitsua izango litzateke **enpresari euskaltzaleak aktibatzea**, euren elkar hartu, aktibatu eta antolatzea, euren premia eta kezken arabera. Ekonomisten Euskal Elkargoaren baitan euskaltzaleak bagauden legez, Confebask, Garen, Nafarroako Enpresarien edo Baionako Merkatal Ganberaren baitan ere badirelako izan, hizkuntzarekiko, sentiberatasun hori badutenak; enpresa handien zuzendaritzetan egon litezken legez, gutxiengo izanik ere. Baina horiek ere behar ditugu euskarari: euren txosten, adierazpen edo lan eskaintzak gure hizkuntzan (ere) egin ditzaten eta euskara naturalizatu dadin, ez soilik hitzaldi hasieretako "kaixo, egunon" eta amaieretako "eskerrikasko" etara, baizik eta haratago.

Gobernuek eta Euskal Elkargoak sondeatu eta sustatu beharko litzateke euskara (ere) euren ikurtzat hartzeko prest leudeken enpresariak. Alde hortatik, ezberdindu beharko lirateke:

- Kooperatibismoa. Orain baino lehen aztertua izan den ekarpen handia egingo du, Mondragon taldeak eta haratago. Eskertu, mantendu eta indartu beharrekoa. Adibide gisa, banaketa sektorean Eroskik edo finantzatan Euskadiko Kutxaren (orain Laboral Kutxa) ekarpena azpimarragarria da zinez.
- Sektore publikoak legez sustatu behar du euskara, bai lan eskaintzetan, eta zer esanik ez herritarren eskariari erantzunez. Enpresari izan gabe, enpresa publikoen buru diren euskaltzaleek ere txertatu behar dute ardura hori euren gain.
- Sektore pribatua, ohiko enpresari elkarteek gain, milaka diren **autonomoen alorrean ere**, jorratu beharko litzateke lan ildo hori.

Hizkuntza gehiagok, aberastasun handiagoa, mesedea, eta gertutasuna dakarrelako, tokian-tokioa eskaintzeagatik eta erroak sendotzeko modu gisa. Hizkuntzak ez daudelako elkarrekin kontrajarriak. Enpresa txikian ere jardutea, erradio txikiagoan dabilteaz, are baliagarriago izan liteke gainera: margolari edo igeltsu on, eta gainera euskaldun bat, nahiagoko dugun bezeroak ere bagaudelako, "Gure zirkua" (kultur enpresa ekimen bat) doble estimatuko dugunak. Hizkuntzak **balio erantsia** ematen diolako zerbitzuari. "Lansarean" enplegu portala erabiltzeak edo "Bai Euskarari" moduko ziurtagiriek irudi korporatiboa osatzen duten bezala. **Munduan egoteko gure moduaren berri emanez eta enpresaren funtzio soziala azpimarratuz.**

### 1.3. Ingurua

Kontsumitzaile eta produktu/enpresari harremana, ekonomia edo merkatua, kontestu jakin batean ematen da. Datozen pare bat hamarkadetan klima aldaketa eta iraultza digitala erronka izango dituen kontestu edo **inguruabar historiko eta teknologikoari** begira. Eta Euskal Herriaren kasuan, erronka demografikoa, zahartzea eta, ziurrenik, inmigrazio olde berri baten premiazko ailegaera biziko dituen. Maiztua egon liteken arren, hortxe da “Glocal” kontzeptua, global eta local bateratetik: munduan joera homogeneizatzaile handiak diren honetan, nortasuna, ezberdintasuna, bertakotasuna ematen duena dira erronka. Eta hori bai, “Google translator” baten eskutan irudi korporatiboa suntsitu eta barregarri utzi dezaken horrekin kontrajarria; “Atsedetik ez, drogarik gabe” efektua. Alderatu errealitate hori, Ondarruko subsahariarrak euskaldundu dituenarekin.

Gizatasuna, gizaki izatea, ezinbestean lotua dago hizkuntzari, nortasunari eta komunikazioari: **bioaniztasuna, hizkuntzen ekologia eta ekosistemak osotasunean aztertzea** ezinbestekoa da. Euskara lantresna eta helburu duten enpresak ere izan behar ditugu, eta **komunikazio alorra bereziki da garrantzitsua**. Inguru horrentzat fntsezko izango dira EITB, EKT (Berria), Argia, ttap, Tokikom, irratia... Komunikazio enpresak *per se* dira aktibo funtsezkoak eta, horregatik, babes publiko egonkorra behar dutenak. Baina hauekin elkarlanean, **iragarki bidez, mezenazgo bidez, kenkari fiskalen bidez, enpresako euskara planen bidez, euren irudi korporatiboaren lagun, sektore guzti-guztiak** sartzen dira. Kilometro zero ko hizkuntza, Euskal Herrian, euskara delako.

Adibide batzuk aipatzearen: Orkli kooperatibak, konfort eta pertsonen segurtasunean munduko lider denak, berriki atera duen iragarkian “Hizkuntza berean hitz egiten dugu” dio, euskal prentsan. Trenak egin eta saltzerakoan nagusiki ingelesez egindako zientzia baliatzen duen enpresa hori, CAF-Elhuyar sariak babesten agertzen da ondoren; edo Irizar autobusgileak Donostiako Zinemaldian euskal zinemaren sari izenkidea babesten duenean (Itxaro Borda epaimahaiburu duena). Enpresa horiek (hiru adibide baino ez dira) horrekin zuzenean diotena eta askoz gehiago esaten ari zaizkigu, euren funtzioaz, euren arrastoaz, euren jardunaz. Beraz, **aktibo garrantzitsua da babes horiek eskaintzeko ahala duten enpresa sarea**. Ekonomia lehiakorra behar dugu, hortarako ere.

Baina etorkizunera begira, aktibo bat izango da edo izan liteke, enpresa hauek **aitorpen publikoa** izan dezaten euren ekarpenagatik, euskararen garapenaren aldeko ahaleginagatik. Euskaldungoaren aldetik aitorpena. Ederra den lore hori ureztatu dutelako, enpresa(ri) bakoitzaren ahalekin arabera, sentiberatasuna erakutsi dutelako. Euskaraz bizi nahi duen komunitate batek presente izan behar du hori nahi eta nahi ez.

### 1.4. Mugarik gabe

Euskara hizkuntza **moderno** da. Euskarak .eus domeinua eskuratua du jada; Google, Facebook edo Twitter moduko puntako enpresen produktuetan presentzia izatea lortu du. XXI. mendean tarteak, atzerapenak, estutu egin ditu, liburugintzan edo prentsan zekartzanaren aldean. Bere txikian, Wikipedian ere, presentzia txukuna du. Eta ekimen horietako askok, **auzolana** izan dute oinarri. Auzolan moderno. Auzolana hiltzorian ikusten duenak, ez du (euskarazko) Wikipedia ezagutzen. Diruaz harago, **booktegi** bat martxan jarri duenak; edo Azpitiuluak ekimena.

Egungo teknologiak txikitik ere eragitea posible egiten duelako sarri, euskarazko irratia Zelanda Berritik entzutea posible egin duen legetxe. **Euskaldun teknologoak, ekintzaileak, frikiak** nahi bada, kapital ekonomikoaren aktibo ere badira (edo izan litezke). Txiolariak, youtuberrak edo munduko gainerako joera eta asmakizunak gurera gurean ekartzen duten horiek. Lehen ordainduz eta orain sarri debalde (... doan bada, produktua zeu zara, diote dakitenek) diren zerbitzu horiek euskaldundu dizkigutenak.

Euskara noranahiko duten ekintzaileak, izan ekonomia sozialean edo kapitalistan. Unibertsitateetan, lanbide heziketan, irakasleak, euskal adarreko ikasleak, batu, elkartu behar ditu; hortik eskola profesionaletan, enpresari talde eta ikerlarien artean berdin. Euskarak bilgune izan behar du, energia positibo eta eraikitzaile baten motor: fisikan (Pedro Migel Etxenike bat) Nobel saridun, edota teknologian (Xabi Uribe-Etxebarria bat) nolabait Steve Jobs berria bihurtuz gero, euskaldunek euskara (ere) urrun eramango dute. Enpresari, langile, aktibista, guztiak ere, euskararen inurri bihurtu behar ditugu katalan hizkuntzak bereak dituen beste. Kapital ekonomikoa diogu baina, zinez, **giza kapitala** baita gakoa. Pertsonak. Euskaraz garatu/bizi nahi dugun pertsonak,

harrotasunez, harrokeriarik gabe. Kapital ekonomikoak tradizionalki izan duen garrantziari, know how edo egiten dakiten pertsonak gailenduko baizaizkie, ziurrenik, 2040ra begira.

## 2. Inpaktu potentzialak: merkatua eta noranahikotasuna

Kontsumitzaile ahaldunduen inpaktu potentziala, eskaria, giltzarria da eskaintza sustatzeko, **merkatua** sortzen du. Euskarak gehiago edota, gutxienez, hobeto saltzea ahalbidetuko die enpresei. Interes komertziala ere aitortuko dio. Lehiaketa publikoetan, oposaketetan beste, balioetsi beharko da hizkuntza, jendearen eskakizuna bada. Euskarak, finean, errentagarri izan behar du negoziarako ere.

Enpresari euskalzaleak aktibatzeak “diruak ere badaki euskaraz” mezua helaraziko du. Euskara **noranahikoa** da eta nonahi eta noiznahi agertu behar luke. Ospea, itzala, edo jendarteren errespetua duten alorretan bereziki agertu behar du. Futbola, kirola, kultura... baina baita zientzia, unibertsitatea eta gorbaten eta enpresen munduan ere, nola ez. Kontu serioetan, mamian; ez soilik haurrentzako programazioan. Genero bereizkeria zaintzen den bezala, hizkuntza bereizkeria ere ez da modernoa, ez da onargarria, eta euskarari bere kuota eskatzea dagokio alor bakoitzean. Beti ere kuoten ezarpena traba edo kostu gisa azaldu ordez, gizartearen eskakizunari erantzuten dion zerbaiten gisa. Nork daki Abenduak 3 batean euskaldunen hitz greba ez ote dugun ikusiko. **Enpresen eta euren marken gertutasuna**, naturaltasuna handituko edo lagunduko du euskarak, hemen bezala nonahi, tokian tokikoa egiteak enpresa eta produktua hobetzen ditu. Bestalde, Erantzukizun Sozial Korporatiboaren (ESK) baitan ere sartu behar du euskarak, ingurugiroa lez, etekinak dituzten enpresek sosak bidera ditzaten euskararen sustapenera. Bestalde, diruzkoak ez diren onurak ere baditu euskarak. Elebidunen artean, hirugarren hizkuntza ikasteko erraztasunarena legez.

**Oreka** (klimatikoa, ekologikoa, generokoa, hizkuntzazkoa, kohesio sozialekoa...) ere lagunduko luke. Enpresa batek migrante bat beka bidez euskaldunduko balu, kasu, integrazioarako atea zabalduko lioke. Ez dago euskaldunik euskara ez dakienik. Migranteak bertakotzeko, errotzeko modu eraginkorra izan liteke. Adibidez, Arratian bi eskola daude migranteek gaztelania ikasteko. Baina euskara jakinda

migranteak ez ote leudeke askoz errotuago gurean? Batipat giza harreman handiko lanetan, zaintza lanak edo ostalaritza kasu. Enpresa batek **aniztasuna** aitortzea beti du mesede, izan genero, izan hizkuntza mailan. Xamarren hitzetan, “Bioaniztasuna mantentzea ez da natur edertasunaren zaleen kontu hutsa, askoz ere gehiago da, baina gizakia doi-doi hasi da ohartzen”.

**Prestigioa**, gazteen erakarpena eta modernotasuna elkarrekin datoz natural. Euskara ez da aintzinarora begira bizi, aurrera begirako tresna izan behar du. Zientziaren edo teknologiaren hizkuntza nagusia ingelesa izan arren, euskarak ere badu bere tokia Inteligentzia Artifizialaren garaian, nortasuna, erroak eta gertukotasuna mantentzen laguntzen baitigu. Robotek ere euskara ikasi beharko dute, gure egingo baditugu. Gure bidezidorra da, autopista handien artean, gozagarri izan behar duena eta espaziora ere hedatuko dena, agian, noizbait, konplexurik gabe eta noranahiko. Gure zidorra, txinera, hindia, gaztelera edo ingelesa izango diren autopista handien alboan.

## 3. Lantzeko gaitasunak (euskaraz bizi nahi duen komunitateak)

Euskarak **bilgune izaera indartu** behar du. Pentsakera, arraza, erlijio, lanbide, euskalki ezberdinak barne hartzeko gai izan behar du. Euskaraz bizi nahi duen komunitateak hedatzeko jarrera izan behar du, euskaldunberriekin bereziki inklusibo eta babesle jokatu behar du. Kontsumo arduratsu eta konszientearekin ere lotu behar genuke euskara, interneteko nabigatzaile eta eskuko telefonoetatik hasi, eta gainerako ondasun eta zerbitzuetara. Datu arteko egunak ditugu: gure arrasto digitalak datu ugari uzten ditu, nonahi eta noiznahi, gailu ezberdinetan, kutxazainetan edo webgunetan darabilgun hizkuntzaz ere bai. Horren jakitun izan behar dugu eta uneoro euskal arrastoa uzten ari garenen konsziente izan; datua laga, seinalea, ikus gaitzaten nahi badugu.

Txiki askoren indarrak jabetu behar dugu, **crowdspeaking** bat eginez. Hemen gaude, hizkuntza asko dakizkigu, baina geurea hau da eta euskaraz bizi nahi dugu, zoriontsu(ago) egiten gaituelako. Eta horretarako, **gutxienez belarriprest**-ak behar ditugu inguruan. Horien ahalegina ere aitortzen ikasi beharra dugu, euskarazko galderei gaztelerazko erantzunak balekartza ere.

Enpresariak, ekintzaileak, pertsona gisa ikusten ohitu behar dugu. Euskaraz jarduten eta saiatzen direnekiko, enpatia eta aitortza handiagoa izan behar dira. Diruak ez du ez aberri, ez bihotzik. Baina enpresariak, euskaldunberriak legetxe, pertsonak direnez, bai. Gaztelaraz edo frantsesez soilik molda gintezke guztiok. **Ahaleginak aitortzen ikasi** behar dugu, errespetuz, hartzaille eta emailearen aldetik. Euskara lokarri gisa ikusi, enpresetan proiektu amankomun gisa, win-win joko gisa eta etekin ekonomiko eta soziala dakarren zer baiten gisa. Enpresak zerbitzua eskatutako hizkuntza ematen ohitu behar du, kontsumitzailearen hobe beharrez, elkarbizitzarako, elkarrezagutzarako lagungarri, zubi. Euskal Herritik kanpo beste hizkuntzak ditugu aukeran, baina kabirako gurea badugu.

Teknologiak txikitutako munduan, itzultzaile automatiko oso onak lortuko balira ere, **eleaniztasuna** sustatu behar dugu; multikulturalitatea; elkarren berri izan eta ulertzea. Hego Euskal Herrian frantsesa bazter utzi dugu azken hamarkadetan; bertatik bertara dugun errealitatea izan arren eta iparraldea ulertzeko ezinbesteko tresna. Alderantzira (gaztelera, iparraldean) ez da hain nabarmena joera hori. Nolanahi, multikulturalitatea, migranteek dakarkiguten aniztasuna, aberastasuna eta euren bertakotzea sustatu behar ditugu, beti ere (genero eta) hizkuntza aniztasunak oinarri hartuta, oinarritzko eskubide dugulakoan.

Eta horrelakoetan, alor ezberdinetan euren jardunetan punta-puntan dabilzan erdi-euskaldun edo euskaldun pasiboen kasuan bereziki, giza kapitala deitu dugun horri, euskara abaro, eta ez arazo, izan dakion lortu beharko dugu.

#### 4. Palankak

Kontsumitzaileak ahalduntzeko, hezkuntza, **informazioa** edota transmisioa behar dira, ahoz ahokoak indartu dezakena, baina egun **sare sozialak** baliatuz biderka daitekena. Euskaraldia moduko esperimendu batek, kasu, seinalea jartzen du balizko hartzaille eta emaileez. **Euskararen community manager lanak** (ere) egin beharko dituzte etorkizuneko euskara teknikariek.

Adibidez, Facebooken badira Bilbo Handian euskaldun taldea, 300dik gora jarraitzaileekin; eta Bilbo euskaraz, ia 400 dituen. Horrelako taldeek euskaldungoa aktibatu, ahaldundu eta koordinatzeko balio dezakete; baita kontsumitzaile gisa ere.

Sarasuak irlen artxipelago deitzen zuen horren aurrean, zubi. Instagramen ehundaka jarraitzaile dituztenen aipamenak ere, argigarri dira, euskararen alde edo aurka gertatutakoak zabaltzeko eta salatzen. Elebide-ren moduko zerbitzuak, kontsumo taldeak edo Berrialagun moduko mugimenduak, edo Deskontu sarea modukoa, baliatu egin behar dira. Merkataritxikiek ere, giza faktorearen eta kalitatearen aldeko apostu horretan, euskara presente izan behar luketelako. Euskaldunak, kontsumitzaile gisa ere, aktibo izan behar du. “Euskaraz bizi nahi dugu”-la erakutsiz.

Burgesia euskaltzalea topatu eta aktibatu egin behar da, enpresari eta autonomo elkarten bidez. Baina euren **erritmo, egiteko modu eta behar propioei erreparatu behar zaie**. **Euren palanka propioak** beharko dituzte, euren neurria eginak.

Bertoko enpresari txikiak ere bereziki kontuan izan behar dira eginahal horietan, enpresa handi guztiak aurrez txiki izan direlako eta errotuago egon litezkelako, handiagoak direnak edo kanpotik datozenak baino. Alde horretatik, mezenazgoa bultzatu eta aitortu behar da, euskara sustatzera bideratutako inbertsioen gaineko kenkari fiskalak, Erantzunkizun Sozial Korporatiboarekin lotura, enpresa fundazioekin harreman du behar du euskalgintza instituzionalak.

Kooperatibismoan erro sakonak ditu euskaltzaletasunak. Mondragongo tradizioa lekuko. Hori zainduz, haratago ere joan behar da. Finantza sektorean, Laboral Kutxaz gain, banku fundazioek (BBK, Vital eta Kutxa, zein La Caixa fundazioak) ekarpen iraunkor samarrak egin beharko lituzkete ildo hortan, enpresarien partaidetzari bide emanaz. Hala eskatu beharko genieke.

Ondare inmateriala babesten du UNESCOk, berbarako: ba ote dago ondare inmaterial baliotsuagorik, geurean, hizkuntza bera baino? Ba ote dugu ezer bereizgarriagorik gure Europako txoko honetan, indoeuroparra ez den baina modernotasunean txertatua den hizkuntza bera baino?

Euskaraz (ere) jardungo diren sareko aktibistak (txiolariek, influencerrak etabar) ere gaztedia aktibatzen palanka bat izan litezke. Azkue Fundazioaren ahaleginak, adibidez, azpimarragarriak dira ildo horretan. Baina Alondegia edo Tabakalera gisa, hiri erdigunean kokatzea komeniko litzateke. Presentzia fisikoa, hirien erdiguneetan, giltzarria da. Bilboko Kafe Antzokia lekuko. Baina aldi berean, teknologia baliatu

behar dugu. Tropela.eus moduko ekimenek erakusten dute teknologia aktibistek enpresa ideiak (ere) garatu ditzaketela.

Kafe Antzokien sare koordinatu bat ere aktibo garrantzitsua izan liteke. Euren forma juridikoa edozein dela ere, tokiko komunikabideen artean gertatu den legez.

Lan merkatuan migranteak txertatzeko, eleaniztauna prestigiatu eta praktikatu behar da. Elebitasunetik harago. Beharrezko ez denak, galtzeko arrisku handia baitu. Zenbait lan lortzeko, euskarak beharrezko eta baliagarri izan behar du, baloratua izan behar du.

Diaspora 8. Lurraldea bada, berez 9. herrialdearena egin behar du ingurune digitalak, internetek, sareak. Bizkaia Talent moduko ekimenek, Euskal Herria erreferente hartu eta euskara zentralago jo beharko lukete. Euskaldun (ere) izateak, abantailak eragin behar lituzke horrelako sareetan. LinkedIn sare sozial profesionalean, “Euskerak linkatzen gaitu” taldeak 964 jarraitzaile ditu. Atzerrian dagoen euskal talentua gurera itzul dadin atea zabaltzeko ere baliatu beharko lirateke gantxook, euren seme alabak euskaraz ere hezteko aukera eskainiz herriminez joan direnei.

## 5. Azken ondorioak

Euskarak biziraungo du euskaraz bizi nahi duen komunitatea baden artean. Kapital ekonomikoarentzat nekez izango da euskara hizkuntza zentrala eta ez du helburu edo tresna nagusi izango. Baina errape horretatik edaten ere ikasi behar du euskalgintzak, bi norantzako interes interesatua piztu dadin. Sektore publikoaren eta honen politiken laguntzaz, orain artean arrotz izan zaizkion moketak konplexurik gabe zapaltzen joan behar du gure hizkuntzak, modernoa, noranahikoa eta nortasunaren adierazle izan nahi badu. Eta nahi du.